

/ Nabarmentzekoak

- > Usategi parkea hobetu eta egokituko da (2. or.)
- > Anders Fjeldsted Sextet, Getxo Jazzen talde lehiaketaren irabazlea (3. or.)
- > Agustin Ugarte Oroimenezko V. Triatlói Olinpikoa, uztailaren 21ean (4. or.)



Albiste faltsuei buruzko lan batek irabazi du Getxophotoko lehen "Nazioarteko Open Call" txapelketa (3. or)

Santa Ana jaietan. Ostiralek, uztailak 20, igandera arte, uztailak 22. Ostiralean, 19:00etan, txupinazoa eta magia erakustaldia (ikusitako ekitaldiak 2. or.-ko agendan).

**A-
GENDA**

30. Nazioarteko Blues Jaialdia. Uztailak 19, osteguna, uztailak 22, igandea (ikusitako kontzertuak 2. or.-ko agendan).

Igogailua eta Genaratxuko oinezkoen pasealeku berriztua inauguratu dira Portu Zaharrean

Getxok badu dagoeneko igogailu publiko berria. Imanol Landa alkatea eta alderdi politikoetako, auzotarren eta Fekoor-eko (Gutxitasun Fisikoa edo Organikoa duten Pertsonen Bizkaiko Federazio Koordinatzailea) ordezkarien presentziarekin, Portu Zaharreko ekipamendu berria inauguratu eta ireki zen iragan asteartean, hilak 10; igogailuarekin batera Genaratxuko oinezkoen pasealeku berritua zabaldu zen. Proiektuak, igogailua eraiki eta pasealekua hobetzeko denak, 700.000 euroko gastua ekarri du, eta horietatik 190.000 Eusko Jaurlaritzak eman ditu, irisgarritasuna hobetzeko diru-laguntza gisa.

Igogailu hau, Portu Zaharreko auzotarren aspaldiko aldarrikapena zen; eta Partaidetza bidezko Aurrekontuetan hautatutako proposamenetako baten emaitza ere bada. Ekipamendu honen inaugurazio ekitaldian izan ziren auzotarren ordezkariak pozik agertu zen, Getxoko toki esanguratsu honetan beren eskaeretako bat bete egin delako.

Igogailu panoramiko berriak auzoko irisgarritasuna hobetzen du, 15 bat metroko altuera duen desnibela gainditzen baitu; bertan 16 lagun sartu ahal dira batera eta dohainik erabili ahal da. Hasiera batean, igogailua 07:00etatik 24:00etara ibiliko da.

Portuko auzoan irisgarritasuna hobetzeko proiektu honen Genaratxuren eta Usategiko parkearen arteko oinezkoen pasealekua hobetzea ere barne hartzen zuen. Laster, lan berriak lizitatuko dira Genaratxuko pasealekuan egoteko dauden guneak birgaitzeko. Behe aldean, halaber, zabalguneko sarreraren eta igogailuaren arteko zatia berriz asfaltatuko da eta ekipamenduaren aurrean oinezkoen pasabide bat ipiniko da.

Udala irisgarritasuna hobetzeko lanean ari da. Izan ere, Portuko igogailua Ereagan, Villamonten, Aiboan eta Alangon daudenei (Alangoren kasuan laugarren igogailua egiten ari da) eta Salsidu eta Bidezabalgo eskaile-ra mekanikoei gehitu behar zaie.



Alkatea, politikari eta auzotarren ordezkariak inaugurazioan



Genaratxuko pasealekua lan berriekin osatuko da

Aiboa eta Alango artean oinezkoen pasabideak hobetu eta sendotzeko obrak adjudikatu dira

Aiboa eta Alango artean oinezkoen pasabideak hobetu eta sendotzeko obrak adjudikatu ditu udalak. Obra horietan 2 metroko zabalera duten ibilbideak egingo dira eta, zoladura egokitzeaz gain, zona desberdinak behar bezala argiztatzeko beharrezkoak diren argiak ere jarriko dira.

Neguri eta Algorta artean oinezkoentzako konexioa sortzeko planean sartzen da aipatutako proiektua. Horretarako, beste hiri-parke bat sortuko da Aiboako goialdean, zeinaren bidez Alango eta Konporte kaleetatik metro-geltokira joateko ibilbide irisgarria eta segurua egingo den. Planak beste bi jarduketa hartzen ditu barne: Aiboako geltokia Miguel Beaskoa kalearekin lotzen duen igogailu berri bat jartzea Udala Egoitzaren ondoan, eta inguru horretan dagoen baso-eremua



parke gisa egokitzea. Proiektua idazteko fasean daude jarduketa biak.

Beste zenbait proiektu gehitu behar zaizkie jarduketa horiei, hala nola Alangon laugarren igogailua instalatzea, Alango eta Aiboa artean oinezkoentzako ibilbideak egitea, Iturribarri guneako parkea, etab.

Uste da oinezkoentzako pasabideak egiteko lanek bost hileko iraupena izango dutela, hasten direnetik zenbaitzen hasita. Egoera txarrean dauden guneak hobetuko dira eta beste batzuk zolatuko dira. Bestalde, luminariak jarriko dira pasabideetan, 24 metro bakoitzeko. Aiboako geltokian hasten den bidea Iturribarri guneako pasabideetara egongo da konektaturik.

Aipatutako proiektuaren jarduketa burutzeko aurrekontua 490.000 euro ingurukoa da.



UZTAILAK 12 OSTEGUNA

GETXO MAGIK - Getxoko Magia Jaialdia. Uztailaren 15era arte, magia saioak eta tailerrak zenbait lekutan. Sarrera dohainik. **MAGIPOTEOA** (euskaraz/gaztelaniaz): TOR + TXOBORRO + ERIZ + ZANARTU magoak, 18:00etan, Algortako Geltokia plazan; 19:30etan, Areetako Geltokia plazan.

UZTAILAK 13 OSTIRALA

GETXO MAGIK - Getxoko Magia Jaialdia. Sarrera dohainik. **HAURRENTZAKO TAILERRAK** (gaztelaniaz): BALBI MAGOA, 17:30ean, Algortako Kultur Etxean. 6 urtetik gora (nagusi batek lagunduta). **MAGIA TXOKOAK** (euskaraz / gaztelaniaz): ZANARTU + JUAN PAÑOS + ERIZ magoak, 19:00etan, 19:30ean eta 20:00etan, Algortako Geltokia, San Nikolas eta Tellagorri plazetan.

UZTAILAK 14 LARUNBATA

GETXO MAGIK - Getxoko Magia Jaialdia. Sarrera dohainik. **HAURRENTZAKO TAILERRAK** (gaztelaniaz): BALBI MAGOA, 11:30ean, Romo Kultur Etxean. 6 urtetik gora (nagusi batek lagunduta). **SALON** (euskaraz / gaztelaniaz): TOR + TXOBORRO magoak, 17:00etatik-19:00etara (ordu erdiroko pase murriztuak), Areetako Geltokia plazan. **ESZENAKO GALA HAN-DIA** (euskaraz / gaztelaniaz): JUAN PAÑOS + JON ZABAL + SR. PÉREZ + TOR + TXOBORRO magoak, 21:00etan, Romo Kultur Etxean.

UZTAILAK 15 IGANDEA

GETXO MAGIK - Getxoko Magia Jaialdia. Sarrera dohainik. **MAGIPOTEOA** (euskaraz / gaztelaniaz): TXOBORRO + BALBI magoak, 12:30ean, Borobia plazan, Tamarindo kalean. **HAURRENTZAKO TAILERRAK** (gaztelaniaz): BALBI MAGOA, 17:30ean, Itxas Argian (Iturribide 24 - Andra Mari). 6 urtetik gora (nagusi batek lagunduta). **MAGIA POTAGIAK** (haurrentzat; euskaraz): MARSEL magoa, 19:00etan, Malakate plazan (Andra Mari).

UZTAILAK 16 ASTELEHENA

Odol-ateratzea. Algortako Geltokia plazan, goizez eta arratsaldez.

UZTAILAK 19 OSTEGUNA

Odol-ateratzea. Areetako Geltokia plazan, goizez eta arratsaldez.

30. Nazioarteko Blues Jaialdia. Algortako Biotz Alai Abesbatza plazan, 20:00etan, The Excitements + The Blues Morning Singers. Sarrera: 10€.

UZTAILAK 20 OSTIRALA

30. Nazioarteko Blues Jaialdia. Algortako Biotz Alai Abesbatza plazan, 21:00etan, Bette Smith. Sarrera: 10€. Algortako The Piper's Irish Puben, 23:00etan, Barney's Band.

Santa Anako jaiak. 17:00etan Txikigunea eta Koadrila Txapelketa; 19:00etan txupinazoa eta Magia erakustaldia; 20:30etan sardina jana eta 22:30ean kontzertua Cosméticos eta HDH taldeekin.

UZTAILAK 21 LARUNBATA

30. Nazioarteko Blues Jaialdia. Kirol Portuan, 13:00etan, The Big Flyers. Sarrera dohainik. Algortako Geltokia plazan, 19:00etan, eta San Nikolas plazan, 20:00etan, Granujas a todo ritmo. Sarrera dohainik. Biotz Alai Abesbatza plazan, 21:00etan, Coco Montoya. Sarrera: 15€. Algortako The Piper's Irish Puben, 23:00etan, Marayá.

Santa Anako jaiak. 10:00etan Magic txapelketa; 11:00etan Koadrila txapelketa; 11:30etan Txikigunea; 13:00etan Berantzagi Dantza Taldea; 14:00etan Tortilla txapelketa; 17:00etan Txikigunea eta Koadrila txapelketa; 18:00etan Igela eta Txapel txapelketa; 19:00etan Buruhandiak eta Kalejira; 20:30ean saiheski jana eta kontzertua (Rap gaua) Tierra Kritikal eta Calero LDN + El Fichaje taldeekin.

UZTAILAK 22 IGANDEA

30. Nazioarteko Blues Jaialdia. Kirol Portuan, 13:00etan, Still River. Sarrera dohainik.

34. Nazioarteko Folklore Jaialdia. Algortako Biotz Alai Abesbatza plazan, 21:00etan, African Tumbas (Kenia). Sarrera dohainik.

LXII. Nazioarteko Paella Txapelketa. 10:30ean, txapelketarako izenematea; 12:00etan, aurrekua eta Itxas Argia Dantza Taldea ikuskizuna; 13:30-14:30, paellen aurkezpena; 17:30ean sari banaketa eta 18:30ean erromeria. Egunean zehar umeentzako jolasak.

Santa Anako jaiak. 11:00etan Futbol 3 txapelketa; 11:30ean Txikigunea; 12:00etan Koadrila txapelketa; 14:00etan Paella txapelketa; 17:00etan ur guda; 17:30ean apar jaiak; 18:30ean Herri Kirolak; 19:30ean sari banaketa; 20:00etan karaokea; 23:00etan cinema eta 23:59an amaiera.

- **Mutila** edadetuak zaintzeko lana bilatzen ari da. Eskarmentua eta jarrera ona. Tel.: 631 018 887.

- **Errentan** ematen dut apartamentua Donibane Lohizunen, denbora laburrerako (3 egun gutxienez), 6 lagunentzako gehienez. Jai Alaitik gertu. Tel.: 679 45 50 60.



- **Errentan ematen dut lonja** bat Gobela kaleko 24an (Areetan). Egokituta. Tel.: 94 602 07 42.

Norberaren iragarriak direnez gero, aldizkari hau ez da horien edukien egiazkotasunaren erantzule izango.

Tratu txarren biktimak artatzeko Eusko Jauriritzaren telefono zerbitzua: 900 840 111

STAFF Getxoberri eGetxoko Udaleko Komunikazio Sailak kaleratutako argitalpena da eta horretan udalari eta tokiko bizitzari lotutako albisteak eta informazioak agertzen dira astero. Komunikazio zinegotzia: **Amaia Agirre** Zuzendaria: **Javier García**. Erredaktoreburua: **Itziar Aguayo**. Erredakzioa: **Nekane Ardanza**, **Monika Rodrigo**, **Iñigo Olondo**.

Urgull Kalea z.g., 4º. Tel. 94 466 03 20. 48991 Getxo.

E-posta: getxokoudalaprensa@getxo.eus

Arte arduradunak: **Bostnan Bilbao S.L.** Inprimaketa: **Bilbao Editorial Producciones S.L.U.**

Banaketa: **Lantegi Batuak** Gordailu legala: **BI-388-87**



Genero indarkeriaren gaitzespena

Udaletxe aurrea eta Telletxe kaleko puntu morea bi elkarretaratzaren agertoki izan ziren iragan ostegunean, hilaren 5ean, uztailaren 1ean salatutako genero-indarkeria eta eraso sexistako saiakeraren ustezko

delitua gaitzesteko. Elkarretaratze horietan Keltse Eiguren Berdintasun arloko zinegotziak, Udaleko ordezkari politikoek eta hainbat herritarrek parte hartu zuten. Udaleko Bozeramaileen Batzordeak,

bere aldetik, komunikatu bat zabaldu du gertaera horiek gaitzesteko.

Adierazpen osoa hemen <http://getxo.eus/es/servicios/comunicacion/notas-prensa/1388>



Usategi parkea hobetu eta egokituko da

Usategi parkeko barandak berriztatu eta behegaina, horma-txo eta paretak garbitu ondoren, Udalak udalerriko eremu eza-gunenetako honen hobekuntza estetiko eta funtzionala egiteko agindutako lanekin jarraituko du.

Hurrengo lanak izango dira argiak kendu eta berriak ipintzeko eta parkean zehar oinezkoen igarotzea irisgarriagoa egiteko; lan horiek, beti ere, gunearen ezaugarri bereziak errespetatuko dituzte. Izan ere, led argi berriak erositako dira argiztapena hobetzeko; eta, ondoren, jarraitzen emango zaio eskumako iraganbideari Erremitteriena kaletik begiratokiaren ingururaino; irisgarria izango da iraganbidea begiratokiaren mailan, 10 metroko inguruan, sarbide bat egingo baita.

Udal osoko bilkurak 2017ko martxoan onetsi zuen PPren mozio bat, Guk-ek transakzionatua

eta gainontzeko talde politikoek babestu zutena, parke honetan hobetze, txukuntze eta irisgarritasun lanak egiteko.

Lehenago ere egokitu zuten parkea, 1990. urtean; orduan parkean zeuden berdegune eta pasealekuen trazadurari eutsi zitzaion.

Etorkizuneko jarduketak

Beste alde batetik, etorkizuneko bi jarduketa aurreikusten dira; horiek gauzatzeko izapideak egiten ari dira dagozkien proiektuak idazteko: bata, kafetegiko eraikinari dagokiona, bere egituraren egoera, fatxadak eta estalkia hobetzeko; eta bestea, eraikina bera irisgarri egiteko, eta halaber, Genaratxuko amaiera Usategi parkearekin lotzeko, igogailu bat ipiniz.

Bien bitartean, esleitu dira eta hastear dira eraikina ixteko lanak, bidegabe sartzea galarazteko neurriekin.



Esklerosi Anizkoitzagatik Busti zaitetz

Lagun ugari Ereagako hondartzako uretan sartu ziren aurreko igandean, uztailak 8, **Esklerosi Anizkoitzagatik Busti zaitetz** kanpainaren XXI.edizioaren ekitaldi nagusian, Euskadiko beste hainbat igerileku eta hondartzatan bezala. Eugenia Epalza Esklerosi Anizkoitza Euskal Fundazioak antolatuta, Ereagan, aurpegi ezagunak izan ziren, tartean Amaia Agirre Gobernu Irekia eta Komunikazioko zinegotzia eta Asier Hormaza aktore getxotarra.

BERRI LABURRAK

Kaixo.Getxo gidali-burua. Udalak harrerarako baliabideen gidaren 1.500 ale argitaratu berri ditu. Paperezko argitalpena (euskaraz eta gaztelaniaz) entitate sozial, HAB, Gizarte Zerbitzuetako bulego eta abarren artean banatuko dira. Online bidetzko gida udal webgunean dago (www.getxo.eus/kaixo), zazpi hizkuntzatan (gaztelera, euskara, ingelesa, frantsesa, errumaniera, arabiera eta txineraz), eta Bilbo, Barakaldoko, Durangoko eta Ermuako udalekin elkarlanean eginda dago, Eusko Jauriritzaren laguntzarekin. Kaixo.Getxok udalerrira heltzen diren pertsonen informazio zabala azaltzen die, besteak beste, erroldatze, osasun arreta, gizarte eta lan baliabide eta kultura eta kirol eskaintzari buruzkoa.

Getxon erosteak eta kontsumitzeak saria dakar. Uztailaren 31ra arte udalerriko 40 establezimenduk horietan 10 euro edo gehiagoko erosketa edo kontsumoa egiten duten bezeroak sarituko dituzte 10 eta 100 euro bitarteko balioa duten **hazkatu & irabazi** txarteletan, kasu batzuetan establezimendu horretan eta beste batzuetan beste lokaletan gastatzeko. Getxo Enpresak sustatuta Udalarren laguntzaz, ekimenaren helburua da kontsumoa sustatzea eta bertoko zein kanpoko bezeroak saritzea. Txartel sariak irailaren 30era arte trukatu ahal izango dira. Atxikitako enpresen zerrenda elkartearen webgunean kontsulta daiteke: www.getxo-enpresa.com

“Kontuz etxez-etxe salmentekin” da Kontsumoko Euskal Institutua-Kontsumobideek martxoan jarri berri duen etxez etxe salmentei buruzko informazio-kanpaina. Horren helburua da pertsona kontsumitzaileen eskubideen berri ematea eta, gainera, etxetara joaten diren komertzial batzuek dabilzaten praktika ez oso zuzenak eragozteko. Guzti horri buruzko informazioa emateko liburuxka bat bat argitaratu dute eta bertan lau egoera erakusten dira: osasunari lotutako produktuen salmenta; beste produktu batzuen, adibidez, entziklopediak, liburu- bildumak, led bonbillak, etab.; elektrizitate eta gas hornidura; eta gas azterketa faltuak. Iaz 2.934 erreklamazio jaso ziren Euskal Autonomia Erkidegoan etxez etxe salmentari lotutako gaiek eraginda.



Argazki-jaialdia irailaren 5etik 30era ospatuko da

Albiste faltsuei buruzko lan batek irabazi du Getxophotoko lehen "Nazioarteko Open Call" txapelketa

Max Pinckers argazkilariak Getxophoto Nazioarteko Argazki Jaialdiko nazioarteko deialdia irabazi du *Margins of Excess* izeneko lanarekin. Gazte belgikarraren lana jaialdiko 12. edizioan egongo da erakusgai, hau da, irailaren 5etik 30era.

Margins of Excess proiektuak Pinckersek 2016. urtean Ameriketako Estatu Batuetan egindako sei hilabeteko bidaiari ateratako argazkiak biltzen ditu. Besteak beste, argazkia egin zion Jay J. Arnesi, eskuak galdu zituen horien ordezkakoak jarzteagatik ezagun egin zena; hala, zortea ematen duen eta bere irudian oinarrituta dagoen superheroi-panpin bilakatu zen, baita Ipar Amerikako ikertzaile pribatu gu-

tiziatuena ere. Proiektu horren barruan honako hauen bizipenak ere islatu dira: Herman Rosenblat, Bigarren Mundu Gerrako kontzentrazio-esparru batean kokatutako maitasun-istorio bat asmatzeagatik ezagun egin zena; Darius McCollum, trenak modu konpultsiboan bahitzeagatik komunikabideak bereganatu zituen; Richard Heene, telebistaz engainu landua antolatuz zena; Rachel Doležal, *beltza* zenaren plantak egin zituen; eta Ali Alqaisi, zeina jendeari sinestarazten saiatu zen Abu Ghraib kartzelako argazki ospetsuan agertzen den *gizon txanoduna* zela. Haiekin guztiekin bildu zen Pinckers, gertakizunen gainean haiek duten ikuspuntua ezagutzeko xedez.

Horrela, haien historiak dokumentatu ditu aurkitutako irudiak, argitaratutako artikulak, egindako elkarrizketak, eta atera dizkieten eta artifizialki argiztatu diren argazkiak baliatuz.

Nazioarteko Open Call txapelketan parte hartzeko deialdiaren ostean, Jaialdiak 47 herrialdeko egileren 276 proposamen jaso ditu.

Azkenik, Getxophotok berriro jarri du martxan bere ekimenen artean famatuenetako bat dena: POP, profesionali ez ezik interesdun eta fotografia zale guztiei zabalitzen den espazioa. Banako argazkiekin zein sailekin parte hartu ahalko da. Izena emateko epea uztailearen 27an amaitzen da.

Uztailaren 12tik 15era bitartean

"Getxo Magic" jaialdia, magia blai lau egunez udalerrian

Uztailaren 12tik 15era bitartean ilusioismoa izango da erabateko protagonista udalerriko auzo guztietan *Getxo Magic*- Getxoko Magia Jaialdiari esker. Jaialdian, formatu anitzeko magia ikuskizun, saio eta tailer egingo dira, euskaraz zein gaztelaniaz, adin guztietako lagunei zuzenduta. Oraingo honetan, Tor, Balbi, Txoborro, Eriz, Zañartu, Juan Paños, Jon Zabala, Sr. Pérez eta Marsel magoak jardungo dira. Saio guztietarako sarrera doakoa izango da.

Magipoteo kaleko saio ibiltarien eskutik hasiko da jaialdia hilaren 12an. Algortako, Romo eta Areetako ostalaritza guneeetan jardungo dira magoak, publikotik oso gertu.



Ostiralean, hilak 13, 11:00etan, haurrentzako tailerrak gongo dira Algortako Kultur Etxean; 19:00etatik Aurrera Algortako Geltokia, San Nikolas eta Te-

llagorri plazetan *Magia txokoak* magia arineko saioak izango dira.

Larunbatean, hilak 14, 11:00etan, Romo Kultur Etxean haurrentzako tailerrak izango dira. Arratsaldean, 17:00etan, Areetako Geltokia plazan urruneko mendebaldean girotuta dagoen *Saloon* ikuskizuna izango da eta eguna borobiltzeko, jaialdiko ekitaldi nagusia izango da Romo Kultur Etxean, 21:00etan. Azken egunean, igandean, hiru ekitaldi izango dira Andra Marin. Goizean, 12:30ean, *Magipoteo* Borobia plazatik Tamarindo kaleraino. 17:30ean, Itxas Argian (Iturribide, 24) haurrentzako tailerrak egongo dira eta 19:00etan, Malakaten, *Magia potagiak*.

Santa Ana jaietan

Datorren ostiralean, uztaileak 20, txupinazoa eta magia erakustaldiarekin hasiko dira Santa Anako jaiak, 19:00etan. Horren aurretik Txikigunea zabalduko da eta Koadrila txapelketa hasiko da. 20:30ean sardinak dastatzeko aukera izango da eta egunari amaiera emateko Cosméticos eta HDH taldeen kontzertua izango da.

Hurrengo eguna, larunbata, Magia eta Koadrila txapelketekin eta Txikigunearekin hasiko da. 13:00etan Berantzagi Dantza taldearen saioa izango da eta tortila txapelketa. Arratsaldean, 18:00etan, Igela eta Txapel jaurtiketaren lehiaketaren txanda izango da, Buruhandiak eta Kalejirarekin batera. Sahieski jana eta rap gaua, Tierra Kritikal eta Calero LDN+ El Fichaje taldeen eskutik.

Igandean, uztaileak 22, txapelketa batzuk izango dira, hala nola, futbol 3, Koadrila eta Paellarena. Arratsaldean, besteak beste, Herri Kirolak, sari banaketa, karaokea eta zinema izango dira.

Izenemateak Ondarberri

2018/2019ko ikasturtean, Ondarretaren haur eta gazte Korua den Ondarberri abesbatzarekin kantatu nahi duten 9 urtetik gorako haurrentzat izena emateko epea zabalik dago. Asmoa ahots-teknika, abestiak eta koreografiak lantzea izango da, lagun berriak egitearekin eta hainbat sorpresa aurkitzearekin batera. Informazioa eta izenematea: 656 797 144 telefono zenbakian edo contacto@coralondarre.com posta elektronikoa.

Argidun erretratuak

Abuztuaren 13 arte bisitatu ahal izango da, Areetako Aremuna kafetegian, Sergio Gardokiren *Retratos con luz* argazki erakusketa. Erretratoen bilduma da eta, zeinetan egileak bere ikuspuntua erakusten baitu argi mota ezberdinak erabiliz eta argazkiak beraiek nahasiz.

Argazki originalak, sormenezkoak, naturalak eta, batez ere, xarmaz betetakoak.



Anders Fjeldsted Sextet, Getxo Jazzen talde lehiaketaren irabazlea

Anders Fjeldsted Sextet talde danimarkarra nagusitu da pasa den astean ospatutako Getxoko 42. Nazioarteko Jazzaldiaren talde Lehiaketan. Hori dela eta, taldeak 4.300€ jaso ditu, CD bat grabatuko du zuzenean eta Lovainako B-Jazz eta Eivissako Jazzaldietan parte hartuko du.

Bigarren saria (1.800€) Pepe Zaragoza Quintet talde espainiarrentzat izan da, eta banda horren saxo-jotzaileak, Joan Saldañak, bakarlari onenari emandako saria (900€) eskeratu du.

Aurten, gainera, zaleek bat egin dute epai-mahaiarekin eta publikoaren saria seikote danimarkarrari eman diote. Bakarlaririk onenaren saria Iñigo Ruiz de Gordejuela, Alexey León Quintet taldeko piano-jotzaileari eman dio publikoak.





Agustin Ugarte Oroimenezko V. Triatloi Olinpikoa, uztailaren 21ean

Datorren uztailaren 21ean, larunbatean, Getxo Triatloi Taldea eta Triunners klubek, Getxo Kirolak-en lankidetzarekin, Agustín Ugarte Oroimenezko V. Triatloia antolatuko dute. Proba honetan, 1,5 kilometro igeri egiten, 46 kilometro bizikletaz eta 10 kilometro korrika osatu beharko dira. Era horretan, emakumeen lasterketa 13:30ean hasiko da, eta gizonena, be-

rriz, 13:45ean, igeriketa probarekin, 750 metroko zirkuitu batean, Areta hondartzatik ateraz eta bertara iritsiz. Ondoren, ibilbide bat osatuko da bizikletaz, Umbe, Loiu, Gatika, Laukiz, Urduliz eta Leioatik, Areetako hondartzaren ingurura itzuli baino lehen. Proba amaitzeko, 5 kilometroko zirkuitu batean korrika egingo da Txurruka moilarekin eta Kirol Portuko

arraunketa eta bela pabilioiekin lotuta. Triatletek zirkuitu horri 2 bira eman beharko dizkiote.

Izena emateko prezioa 35€ dira eta bertan parte hartu ahal izateko federazioaren lizentzia nahita nahiez eduki behar da. Interesatuak izena eman dezakete uztailaren 16ra arte, Triatloiko Euskal Federazioaren orriaren bidez: www.competitions.com.

Belar-hockeyko Mundiala

Maialen García R.C. Jolaseta taldeko jokalaria espainiar selekzioiko kide izango da uztailaren 21etik aurrera Londresen jokatuko den belar-hockeyko emakumezkoen Munduko Txapelketan. Maialen Madrilen dago kontzentratuta, beste 17 taldekiderekin batera. Hor, lagunarteko hiru partida jokatuko dituzte Kanadaren aurka, asteartean, hilaren 17an, hiriburu britaniarrera abiatu aurretik. Munduko txapelketan, selekzio espainiarrak Argentinaren kontra jokatuko du fase erregularreko lehenengo partidua, hilaren 22an, ondoren Hegoafrika eta Alemaniaren aurka jokatuzko.

J 80 bela mundiala

R.C.M. del Abra-R.S.C. elkarteko lau estropadalarari, Javier Sales entrenatzailearekin batera, J 80 klaseko belantzien Munduko Txapelketan ari dira parte hartzen, Les Sables d'Ollonen (Frantzia), larunbat honetara arte, hilak 14. Tomás Trueba, Nicolás Viar, Juan Olabarrri eta Ignacio Canales dira J 80 Worlds 2019 Getxo txapelketan direnak. 2019ko uztailean Abrako uretan jokatuko den Munduko hurrengo txapelketaren mezulariak dira. Areetan izango du egoitza, iragan hilabete XII. Espainiako Kopa modu arrakastatsuan antolatu eta gero.


Aire Libreko Arku Tiroa

Larunbat honetan, hilaren 14an, Fadura errugbi zelaian, Aire Libreko Arku Tiroko Euskadiko XXIX. Txapelketa egingo da, Getxo Arkua klubak eta Euskadiko eta Bizkaiko Federazioek antolatuta, Getxo Kirolak-en lankidetzarekin. Proba bi modalitateko izango da: arku biribilduarena eta arku konposatuarena, eta Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako 60 bat kirolarik hartuko dute parte. Txapelketa 09:00etan hasiko da, eta finalak 18:00ak aldera izatea aurreikusten da. Irabazleak Euskadiko taldean sartuko dira, eta Espainiako Taldekako Txapelketan lehian arituko dira.

Getxok hartzen du padel bizkaitarraren jai handia

Getxo da aste oso honetan Gran Slam Bizkia-XI. Open Getxo txapelketaren egoitza, partaidetza handienetakoa duen lehiaketa eta, hortaz, Bizkaian padel gertaerarik nagusienetakoa da, amateur mailan. Aixerrota Padel Club taldeak eta Euskadiko Padel Federazioak (FVP-EPF) antolatuta, Fadura kiroldegiko instalazioetan ari da jokatzen. Kategoria guztietan jokatzen da gainera, 45 urtetik eta 50 urtetik gorako beteranoen maila bana barne, emakume eta gizonezkoetan, hurrenez hurren.

Halaber, txapelketa hau Bizkaiko Gran Slam-eko bigarren proba da, Euskadiko amateur mailako padel torneo nagusia. Txapelketa horretan hiru lurraldeak dira eta bakoitzak hiru proba antolatzen ditu denboraldian zehar, probintzia bakoitzeko bikote onenak hautatzeko, mailaz maila. Bikote horiek, ondoren, Master izeneko estatu txapelketan jokatuko dute.



Getxoko lehiaketa, hortaz, Bizkaiko padel jai handi gisa sortu da, padel kirolaren mundura zale berriak erakartzeko. Finalak igandean jokatuko dira, hilaren 15ean, eta, ohikoa denez, ekitaldia amaitzeko paella handi bat prestatuko dute bertaratu diren guz-

tientzat. Hitz batean esanda, Getxok erakusten du padela kutsu sozial handia duen kirola dela, Euskadin hazkunde indartsu izaten ari dena. Uste da, txapelketako antolakuntzatik aipatu dutenez, 20.000 lagun direla kirol hau sarri praktikatzan dutenak.

Zortzi domina Getxorentzat aulki mugikorreko Espainiako Txapelketetan

Udalerriko bi arraun taldeek, Raspas del Embarcadero eta Getxo Arraunek, zortzi domina lortu dituzte, guztira, aulki mugikorreko Espainiako Txapelketetan. Azken txapelketan, pasa den asteburuan Sevillako La Cartujan egin dena, Aimar Astigarragak eta Aitor Blancok (biak argazkian Marcos entrenatzailearekin) zilarrezko eta brontzezko bi domina ekarri zituzten Raspasentzat, hurrenez hurren, skiff modalitatean, kadete eta haur mailetan. Getxo Arrauneko Uxue Agirre eta Ainhize Garai arraunlariek, berriz, 2x kadeteko B finala irabazi zuten. Beste alde batetik, egun batzuk lehenago Banyoleseko (Girona) aintziran jokatutako Espainiako Txapelketan, Getxo Arraunek lau metal eskuratu zituen: urrezkoa emakumezkoen 2x absolu-

tuak, Yanka Vieira de Britto eta Oihane Pardo, zilarrezkoa gizonezkoen 1x egoituan, Jorge Pineda, eta brontzezko bi, emakumezkoen 4x eta gizonezkoen 4+ kategorietan.

Raspasentzat izan ziren beste bi dominak, urrea Virginia Díazentzat, skiff absolutuan, eta brontzea Izaskun Etxanizentzat, 23 urtez azpiko skiffean. Horrez gainera, txapelketa horretan lortutako lau laugarren postuak dira aipatzekoak, bina bi elkarreentzat.

Azkenik, gure arraunlarien denboraldi bikaina osatzeko, Virginia Díazek brontzezko domina irabazi zuen, skiffarekin, Castelldefelsen (Bartzelona) egindako XVIII. Mediterraneoko Jokoetan. Aikaterina Nikolaidou greziarraren eta Kiri Tontodonti italiarraren atzetik sailkatu zen.

